


BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO LANAK :

Gure web orritik eskatzen duen bezeroaren kokapenaren arabera izango da bidalketa. Gure bezeroa Gasteizkoa baldin bada, puntu konkretu batean geratuko gara bezeroarekin bere produktua eman ahal izateko edo produktua bezeroaren etxera eramango dugu. Bi aukera hauen artean bezeroak egingo du aukeraketa, berari gehien komeni zaiona aukeratuko du, hau da, gure produktua erosi duen pertsonak bidalketa erabakiko du, hots, zer puntutan geratu berarekin edo berak nahi duen puntu batera eramatea.



Baina gure bezeroak, Gasteizen ez bada bizi Correos bitartez bere produktua nahi duen tokira entregatuko genioke, baina bakarrik Iberiar penintsulan.

Horretarako, bezeroek erosketa egiterakoan haien datuak jarri beharko dituzte, haien hiria edo herria, bizi diren kalearen izena, portaleko zenbakia, pisuko zenbakia eta etxeko kode postala.

